



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK INTERBIAK-EN ETA EUSKALDUNA JAUREGIAREN ZORPETZEA HANDITZEA DEFENDIDU DAU BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- **Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 Foru Arauaren aldaketea aurkeztu dau Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako Batzordearen aurrean, Gizartekutxa Funtsaren banaketa barria ezarteko.**
- **Aldaketak Ogasun eta Finantzetako beste batzorde batean bozkatu beharko dira, eta horren ostean osokoak berretsi beharko ditu.**
- **Batzordeak onetsi egin dau Euzko Abertzaleak taldeko Jane Eyre Urkieta Mahaiko Idazkari barri izendatzea, Jon Andoni Atutxa alderdikide ohiaren lekua hartuz.**

(Bilbon, 2020ko irailaren 16an). Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2020rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 27ko 6/2019 Foru Arauko hiru artikulu aldatzeko asmoaren barri emon deutso gaur Bizkaiko Batzar Nagusietako Ogasun eta Finantzetako batzordeari, Interbiak-en eta Euskalduna Jauregiaren zorpetzea handitzeko eta urte honetako azkenengo hiruhilekoan Gizartekutxa funtsaren banaketea “bermatzeko”. Covid-19aren osasun pandemia dala eta sortu dan ez ohiko egoera ekonomikoa dala eta, “beharrezkoa” da Aldundiaren esku dagozan Merkataritza Soziedade bi horreen zorpetzea eta gizarte arloko hainbat zerbitzu euren gain hartzeko Udalek jasoten dituen funtsak egokitzea.

Zehatzago esanda, Aldundiaren esku dagon Interbiak soziedadeak bere zorpetzea amortizetako epealdiak aldatu behar ditu, jarduera ekonomikoa gelditu izanak eragin dauen diru-sarrereren jatsiereari aurre egiteko. Izan be, jardueria gelditu izanak eragina euki dau A8 autopistako, Hegoaldeko Saihesbide Metropolitarrereko eta Artxandako Tuneletako joan-etorrietan. Abagune hori dala eta, beharrezkoa da aitaturako Foru Arauaren 32. artikuluan ezarten dan Soziedade horren 2020ko abenduaren 31rako zorpetzearen mugea aldatzea. “729,55 milioi euroko” muga barria ezarriko da, oraingo “714 milioiko”



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

mugaren ordeaz, “urte biko” gabealdiagaz. Inbertsinoen Europako Bankuak (BEI) daborduko baimendu dau operazio hori, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako foru diputatuak azaldu dauenez.

Euskalduna Jauregiari jagokonez, diru-sarreraren jatsiera handia jasan dau pandemiaren ondorioz, bertan egiten diran kongresuak eta ganerako jarduerak ezin izan diralako egin. Egoera horri aurre egin ahal izateko, Zortzigarren Xedapen Gehigarriaren bitartez Aldundiak planteetan dauen proposamena, salbuespen moduan, inbertsinokoak ez diran gastuetara bideratu ahal izango dan zorpetzea baimentzea izango da. Holan, Palacio Euskalduna S.A. erakundeari baimena emoten jako “4 milioi euroko” zorpetze mugea izan daian, “ahalik eta amortizazio epe laburrenagaz”, kongresuen zentroko arduradunek egin dituen “aurreikuspenetan” oinarrituta euren jardura nagusia finantzatu ahal izateko. Eragiketa horrek eta Interbiak erakundearenak “ez dabe gastu handiagorik eragingo 2020ko aurrekontuetan”, diputatuak esan dauenez.

Bukatzeko, Aldundiak beste puntu bat onartzeko be eskatu dau. Gizartekutxa funtsak urriaren 2an indarraldia galtzea, eta akordio barri bat ezartea, Foru Arauan Bederatzigarren Xedapen Gehigarria sartuz. Xedapen horrek, Udalakaz ezarritako akordioetan oinarrituta, 2020ko abenduaren 31ra arteko funtsa banatzea eta 2021eko ekitaldiari jagokon likidazioa egitea “bermatuko” dau.

Une honetatik aurrera, Bizkaiko Batzarrek zuzenketa-eskeak aurkezteko epealdia ezarriko dabe, Batzarretako taldeek testuaren aurreko zuzenketa aurkeztu daiezan. Azkenengo dokumentua Ogasun eta Finantzetako Batzordetik igaro beharko da barriro, eta, indarrean sartzeko, osokoak berretsi beharko dau.

Foru Gobernua eusten daben taldeek aldaketa horreen alde agertuko dirala baieztu dabe, horreekaz “garai barri erantzutea eta horreetara egokitzea, zorpetzeko mugea handitzea eta Udalei egin beharreko ordainketak aton martxan jarrea bilatzen dalako”, Jesús María Ortiz sozialistak adierazo dauenez. Unai Lerma jeltzaleak, aldaketa horreek “2020an ez dabela gastu handiagorik eragingo” azpimarratu dau.

Amaya Fernández Talde Bereziko (PP) bozeroalea aldaketen alde agertu da, baina testuak sortzen deusaz “zalantza” batzuk aidentatu ditu, Euskalduna Jauregiaren zorpetzeari jagokona, hain zuzen be. “Ahalik eta amortizazio epe laburren” izan behar dauela esatera mugatzen da, eta ordezkari popularraren



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

eretziz hori oso “subjektiboa” da. Iruarrizagak erantzun dauenez, epea “2021ean kongresu jardueraren arabera izango da”.

Eneritz de Madariaga Elkarrekin Bizkaia taldeko bozeroaleak BEIren maileguen interes tasa oso altua dala esan dau, “%4,76koa”, erakunde hori “%0,5eko” interes taseagaz finantzetan dan arren. “2005ean, baldintzak beste batzuk ziranean, negozioa ziran tasa finkoak dira”, argitu dau Iruarrizagak, eta bere eretziz garai haretan “errazoizko” tasak ziran. Horreek aldatzearen zigorrak, interes tasa txikiagoko maileguen irabaziak baino “handiagoak” izango litzatekez.

Beste alde batetik, saioaren hasieran, batzordeak onetsi egin dau Euzko Abertzaleak taldeko Jane Eyre Urkieta Mahaiko Idazkari barri izendatzea, Jon Andoni Atutxa alderdikide ohiaren lekua hartuz. Azken hori Eusko Legebiltzarrera joango da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN DEFIENDE EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA AUMENTAR EL ENDEUDAMIENTO DE INTERBIAK Y EL PALACIO EUSKALDUNA

- La Diputación presenta ante la Comisión de Hacienda y Finanzas de la Cámara vizcaína la modificación de la norma foral 6/2019, de 27 de diciembre, de Presupuestos de Bizkaia de 2020, para establecer también un nuevo reparto del Fondo Gizartekutxa.
- Los cambios deberán votarse en otra comisión de Hacienda y Finanzas, y ser ratificados después por el pleno.
- La comisión aprueba la elección de Jane Eyre Urkieta, de Nacionalistas Vascos, como nueva Secretaria de la Mesa en sustitución de su excompañero Jon Andoni Atutxa.

(Bilbao, a 16 de septiembre de 2020). La Diputación ha informado hoy a la comisión de Hacienda y Finanzas de las Juntas Generales de Bizkaia de la intención de modificar tres artículos de la vigente Norma Foral 6/2019, de 27 de diciembre, de Presupuestos de Bizkaia de 2020, con el propósito de aumentar el endeudamiento de Interbiak y el Palacio Euskalduna, y “garantizar” el reparto del fondo Gizartekutxa durante el último trimestre de este año. La situación económica extraordinaria surgida por la pandemia sanitaria del Covid-19, hace que sean “necesarios” ajustes en el endeudamiento de estas dos Sociedades Mercantiles Forales y en los fondos que reciben los ayuntamientos para asumir distintos servicios sociales.

En concreto, la sociedad foral Interbiak precisa modificar los períodos de amortización de su endeudamiento para hacer frente a la caída de ingresos originada por la parada en la actividad económica y su efecto en los tránsitos de la Autopista A8, la Variante Sur Metropolitana y los Túneles de Artxanda. Esta circunstancia hace que se precise modificar el límite de endeudamiento de esta Sociedad a 31 de diciembre de 2020, establecido en el artículo 32 de la citada Norma Foral. Se incluye un nuevo límite de “729,55 millones de euros”, en lugar de los “714 millones” de ahora, con una carencia de “dos años” que ha



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

sido autorizada ya por el Banco Europeo de Inversiones (BEI), según ha explicado el diputado foral de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga.

El Palacio Euskalduna, por su parte, ha sufrido por la pandemia una caída de los ingresos, provocada por la parada de la actividad congresual y del resto de las actividades de la entidad. Para hacer frente a esta situación, la propuesta planteada por la Diputación, mediante la Disposición Adicional Octava, es la de autorizar un endeudamiento que pueda, de forma extraordinaria, destinarse a gastos diferentes a la inversión. Así, se autoriza a la entidad Palacio Euskalduna S.A., a un límite de endeudamiento de “4 millones de euros”, con un plazo de amortización “lo más breve posible” para poder financiar su actividad principal en base a las “estimaciones” que han realizado los responsables del centro de congresos. Tanto esta operación como la de Interbiak, “no generarán un mayor gasto en los presupuestos de 2020”, ha asegurado el diputado.

Por último, la Diputación solicita para su aprobación que el Fondo Gizartekutxa pierda vigencia el 2 de octubre y se establezca un nuevo acuerdo mediante una Disposición Adicional Novena en la Norma Foral, que “garantice” el reparto del fondo hasta el 31 de diciembre de 2020, en base a los acuerdos establecidos con los ayuntamientos, y la liquidación correspondiente en el ejercicio 2021.

A partir de ahora la Cámara vizcaína establecerá un periodo de enmiendas para que los grupos junteros puedan presentar sus correcciones al texto. El documento final deberá pasar de nuevo por la Comisión de Hacienda y Finanzas y ser ratificado después por el pleno para su entrada en vigor.

Los grupos junteros que sustentan al Gobierno foral han confirmado ya que apoyarán estos cambios, los cuales persiguen “dar respuesta y adaptarnos a los nuevos tiempos, aumentar el límite de endeudamiento, y poner en marcha ya el pago a los ayuntamientos”, según ha señalado el socialista Jesús María Ortiz. El jeltzale Unai Lerma ha destacado que estos cambios “no generarán mayor gasto en 2020”.

La portavoz del Grupo Mixto (PP), Amaya Fernández, se ha mostrado partidaria de apoyar los cambios, si bien ha aireado algunas “dudas” al texto, en concreto el que tiene que ver con el endeudamiento del Palacio Euskalduna. Se limita a decir que el periodo de amortización será “el más breve posible”, algo tachado de “subjetivo” por la representante popular. El plazo “dependerá



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

de la recuperación de la actividad congresual durante 2021”, ha respondido Iruarrizaga.

Por su parte, la portavoz de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga, se ha quejado del alto interés de los préstamos del BEI, del “4,76%”, cuando esta entidad se financia al “0,5%”. “Son tipos fijos que se negociaron en 2005 cuando las condiciones eran otras”, ha aclarado Iruarrizaga, quien cree que, en aquel momento, eran tipos “razonables”. Las penalizaciones por cambiarlos serían “mayores” que los supuestos beneficios de préstamos a menor interés.

Por otro lado, al inicio de la sesión, la comisión ha aprobado el nombramiento de Jane Eyre Urkieta, del grupo Nacionalistas Vascos, como nueva secretaria de la Mesa, en sustitución de Jon Andoni Atutxa cuyo nuevo destino está en el Parlamento vasco.